**Espedientea: 3HI-019/12-P03**
**ELGOIBAR**
Hiri-antolamenduko Plan Orokorra

**Expediente: 3HI-019/12-P03**
**ELGOIBAR**
Plan General de Ordenación Urbana.

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIAK

**ZIURTATZEN DUT:** Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean, urtarrilaren 28an, 1/2015 bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuten, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

**"I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:**

Elgoibarko udalerriko "Hiri-antolamenduko Plan Orokorra" izeneko espedienteari aldeko txostena ematea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea betetzen baitu eta ondorengo hauetara egokitzen baita: Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeko lurralde-antolamenduko tresnak, eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanen gaineko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean adierazitako alderdiak.

**II.- Uraren arloan:**

URA-Uraren Euskal Agentziak, 2015eko urtarrilaren 20an, aldeko txostena egin zuen, honako erabaki lotesle hauek betetzeko baldintzapean:

1) Txosten honen edukian zehaztutako bi ustiapenak egotea aurreikusi beharko da, baita horien erabilera-baldintzak mantendu ere. Gainera, industria-garapen guztietarako drainatze-proiektu jasangarri bat idatzi beharko da; eta horrek, gutxienez, honako hauek hartuko ditu kontuan: uholdeetako gehienezko emaria, eremu iragazgaitzen mugaketa, infiltrazio naturalaren eremuak, espezie hidrofiloen landaketa, etab. Hori URA-Uraren Euskal Agentzia honetako Ekialdeko Kantauriko Arroen Bulegoan aurkeztu beharko da.

TOMÁS ORALLO QUIROGA, SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO.

**CERTIFICO**: que en la Sesión 1/2015 del Pleno de la Comisión de Ordenación del Territorio del País Vasco, celebrada el día 28 de enero, se adoptó, entre otros, por unanimidad de los asistentes que conformaban la mayoría absoluta de sus miembros, los siguiente acuerdo:

**"I.- En materia de Ordenación del Territorio:**

Informar favorablemente el expediente de "Plan General de Ordenación Urbana", del municipio de Elgoibar, en lo que respecta al cumplimiento de la Ley 2/2006, de Suelo y Urbanismo, a su adecuación a los instrumentos de Ordenación Territorial de la Ley 4/1990 de Ordenación del Territorio del País Vasco y a los aspectos señalados en la Ley 5/1993 de Modificación de la Ley de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los órganos Forales de sus Territorios Históricos.

**II.- En materia de Aguas:**

La Agencia Vasca del Agua-URA, en su informe emitido el 20 de octubre de 2015, informa favorablemente de manera condicionada a que se dé cumplimiento a las siguientes determinaciones de carácter vinculante:

1) Se deberá prever la existencia de los dos aprovechamientos descritos en el cuerpo de este informe y mantener sus condiciones de uso, además de redactarse un proyecto de drenaje sostenible para el conjunto de estos desarrollos industriales, que considere, al menos, caudales máximos en avenidas, limitación de zonas impermeables, zonas de infiltración natural, plantación de especies hidrófilas, etc… y presentarse en la Oficina de Cuencas Cantábricas Orientales de esta Agencia Vasca de Agua-URA.

2) Hornidura eta saneamendua kudeatzen dituen organoaren (Gipuzkoako Urak) adostasun-txostena izan beharko da, proposatutako industria-garapenei dagokienez. Proposatutako garapen berriek beren hondakin-urak Elgoibarko saneamendu sistemara konektatu beharko dituzte; beraz, erakunde kudeatzailea (Gipuzkoako Urak) bat etorriko beharko da, garapen berriaren isurketak saneamendu sistema horretan sartzearekin.

**III.** Espediente hau behin betiko onartzeko, eskumena duen organoari URA-Uraren Euskal Agentziak egindako txostena bidaltzea (I. eranskina). Ziurtagiri hori erantsita doa."

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2015eko urtarrilaren 28an.

2) Se deberá contar con informe de conformidad del ente gestor del abastecimiento y saneamiento, Gipuzkoako Urak, en relación con las propuestas desarrollo industrial. Los nuevos desarrollos propuestos deberán conectar sus aguas residuales al sistema de saneamiento de Elgoibar, por lo que deberá contarse con la previa conformidad del Ente Gestor (Gipuzkoako Urak) de que los vertidos del nuevo desarrollo sean incorporados a dicho sistema de saneamiento.

**III.** Remitir al órgano competente para la aprobación definitiva del expediente el informe emitido por URA. Agencia Vasca del Agua (Anexo I), que se acompaña a la presente certificación."

Y para que así conste, expido y firmo, con anterioridad a la aprobación del acta correspondiente a esta Sesión, en Vitoria-Gasteiz, a 28 de enero de 2015.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN IDAZKARIA
SECRETARIO DE LA COMISIÓN DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO DEL PAÍS VASCO

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ANTOLAMENDURAKO BATZORDEA -PLENOA-

Izpta./Fdo.: Tomás Orallo Quiroga